

Funtsezko Jarduerak



-Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Proiektua aurrera eramateko aplikazioaren iragarkia egin beharko degu eta iragarki hori zabaltzeko gainerako aplikazioetan (jokoetan, sare sozialetan...) horrela iragarkiaren bidez ezagun egingo dugu gure aplikazioa eta proiektua aurrera ateratzea lortuko dugu. Beste aukera bat degu, ikastoletan gure egitasmoaren inguruko aurkezpen bat egitea eta zertan datzan azaltzea bertako ikasleei era horretan ere ezagun egingo dugu.

Nahia aplikazioaren diseinuan berrikuntzak egiten ariko da, aplikazioa egokiagoa bihurtzeko. Leirek bezeroak bilatuko ditu baita ere gure hitzaldiak emateko orduan nora joan; eskoletara, enpresetara. Informatikako eta aplikazioko arazoak edukiz gero, hori konpontzeaz Udane arduratuko da. Junek berriz, aplikaziaren diru kontuak kudeatuko ditu. Horrez gain, denok elkarri laguntzen saiatuko gara, egunen batean oso lanpetuta baldin badago gure lankidea, bere lana murriztuko diogu. Gure enpresaren inguruan emango ditugun hitzaldietan binaka joango gara eta bikote horiek txandakatuz, horregatik astearen bukaeran, hurrengo astea nola burutuko dugun antolatuko dugu. Hitzaldirik edukiz gero zein joango den, zer lan egin behar dugun aste horretan...